

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza
Nagusia
Gipuzkoako udalak**

Proiektu elkartua 2012

Administrazio kontratuetan bete behar diren hizkuntza- baldintzen prozedura, klausulak eta jarraipenerako estandarizazio-proposamena

Estandarizatutako materialaren
bilduma

2014ko urtarrilean eguneratua



0. AURKIBIDEA

0.	Aurkibidea	2
1.	Proiektu elkartua: herri ertainak	3
1.1.	Sarrera	3
1.2.	Helburua	3
1.3.	Harremanetarako Talde Eragilea	3
1.4.	Metodologia	6
1.5.	Alkatearen jarraibide eredia	8
1.6.	Administrazio kontratuetan jarraitu behar den prozedura	11
1.7.	Klausulak	13
1.8.	Jarraipenerako fitxak eta erabilerarako gomendioak	26
1.9.	Kontratatutako zerbitzuetako langileen hizkuntza gaitasuna	31

1. PROIEKTU ELKARTUA: HERRI ERTAINAK

1.1. SARRERA

Herri ertainen talde eragileak 2012an landu duen Proiektu elkartua jaso dugu txosten honetan: *"Administrazio kontratuetan bete behar diren hizkuntza-baldintzen prozedura, klausulak eta jarraipenerako estandarizazio-proposamena"*.

Kontratuetan hizkuntza-baldintzak txertatu eta jarraipena egiteko estandarizatu den materiala eta egitasmoa aurkituko dituzu jarraian. Baita kontratatuko zerbitzuetako langileen hizkuntza gaitasunen adibidea izan daitekeen taula bat ere.

2012an bukatu zen liburuxka honetako materialaren prestaketa baina 2014ko urtarrian prozedurari lotutako aldaketa batzuk egin dizkiogu txosten honi.

1.2. HELBURUA

Txosten honen **helburu nagusiak** hauek dira:

- Administrazio kontratuetan hizkuntza-baldintzak ezarri eta jarraipena egin nahi dutenentzat eskuragarri eta modu bateratuan eskaintzea estandarizatu den materiala.
- Proposatu den metodologiaren inplementazioa egiteko 2013rako zehaztu den plangintzaren berri ematea.

1.3. HARREMANETARAKO TALDE ERAGILEA

Udal<>ekin egitasmoaren babespean **Aretxabaleta, Azpeitia, Bergara, Eskoriatza, Lezo, Oiartzun, Tolosa, Uema, Zarautz eta Gipuzkoako Foru Aldundiko** ordezkariak aritu dira proiektu hau lantzen.

Proiektu honen inplementazio garian ere herri eta erakunde hauetako ordezkariak izango dira harreman zuzena izango dutenak kontratuetan hizkuntza-baldintza txertatu eta jarraipena egin nahi dutenekin.



Hain zuzen, Nekane Jauregi (GFA) ,Maje Umerez (Aretxabaleta eta Eskoriatza), Patxi Saez (Azpeitia), Joxemari Iraola (Lezo), Aitziber Arnaiz (Oiartzun), Miren Aburuza eta Imanol Haro (Uema), Maripi Laskurain (Bergara), Iñaki Azaldegi (Tolosa) eta Maite Etxaniz (Zarautz) izan dira lantalde honetan aritu diren administrazioko teknikariak.

Eskualdekako harremanak modu honetan banatu dira:

Urola Kosta:	Maite Etxaniz
Oarsoaldea:	Joxe Mari Iraola, Aitziber Arnaiz
Buruntzaldea:	Maite Iribar, Imanol Haro
Debagoiena:	Maje Umerez, Maripi Laskurain
Tolosaldea:	Iñaki Azaldegi, Imanol Haro
Urola Erdia:	Patxi Saez

Goierrri eta Urola Garia:

Imanol Haro, Miren Aburuza

Debabarrena:

Maje Umerez, Maripi Laskurain, Leire Asenjo

1.4. METODOLOGIA

1. Hau da udalei proposatzen diegun bide-orria:

1. Plangintzaldi bakoitzeko euskara planean kontratazioaren inguruko aipamen orokorra txertatzea.

Aipamen orokorra hau izan daiteke:

"Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermatzeko helburua izango dute eta kontratazioetarako baldintza agiri administratibo eta teknikoetan jasoko dira hizkuntza baldintzak horiek, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, bere 18.d) artikuluan ezartzen dituen neurriak betetzeko xedearekin.

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira eta kontratu bakoitzean jarri beharreko hizkuntza baldintzak kasuan kasu aztertuko dira, kontratuaren ezaugarriak, helburua eta hartzaileak kontuan izanda (proportzionaltasun printzipioa)."

2. Alkatearen jarraibidea banatu udaleko langile guztiei, kontratuetan jarri beharreko hizkuntza baldintzak zehazteko.
3. Udalak urteko kudeaketa plana baldin badu, kontratazio ataleko neurriak eta lehentasunak zehaztu bertan.
4. Udalean barne komunikazioa landu gaia tajuz zabaltzeko.
5. Prozedura inplementatu.
6. Jarraipena egin Udalean eta emaitzak konpartitu Proiektu elkartuen lantaldearekin.

2. Proposatutako bide orria gauzatzeko, material hau prestatu dugu:

1. Alkatearen jarraibide eredia
2. Prozedurari dagokion fluxu-diagrama
3. Klausulak
 - 3.1. Euskara lehenetsita jarduteko klausulak
 - 3.2. Ele bietaran jarduteko klausulak
4. Jarraipenerako fitxak eta horiek betetzeko gomendioak
5. Kontratutako zerbitzuetako langileen hizkuntza gaitasunaren taula

Eranskinetan daude material honen gaztelaniazko bertsioak eta karatularik gabeko klausulen taulak.

1.5. ALKATEAREN JARRAIBIDE EREDUA

**UDALAREN
datuak**

ZERBITZU AGINDUA

**ZIRKULARRA, UDALAREN KONTRATAZIO
ADMINISTRATIBOAN HIZKUNTZEN OFIZIALTASUN
BIKOITZAREN ARAUAK BETETZEARI BURUZKOA.**

XXXXXXXXXX, YYYYYYYYYYYY Udaleko alkate naizenez, ZERBITZU AGINDU hau ematen diet zinegotzi ordezkari, erakunde autonomo, udal departamentu edo alorrei, teknikari nahiz herri langile guztiei, eta oro har administrazio kontratuen espedienteak prestatzen eta bideratzen parte hartzen dutenei, hizkuntzen ofizialtasun bikoitzaren arauak betetzeko klausulak ezar ditzaten baldintza administratibo orokorren agirietan edo, behar denean, ezaugarri teknikoaren agirietan, eta klausula horiek gauzatzen direla kontrola dezaten, egiaztaturik baitago beharkizun hori ez dela betetzen, eta hori zuzendu nahi da, hain zuzen ere, agindu honen bitartez.

Alkatearen eskumena da, udal korporazioaren buru den neurrian, udal gobernu eta administrazioa zuzentzea, baita zerbitzuak nahiz obrak zuzendu, ikuskatu eta sustatzea ere. Horretarako, langile guztien goi buruzagitza dagokio.

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Lurralde Historikoen Autonomia Estatutuak bere 6. artikuluan xedatzen du euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango duela gaztelaniarekin batera.

1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzkoak, betebeharrak jakin batzuk ezartzen dizkie herri administrazioei, eta haren araugintza garatzen hasi zuen 1998ko azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, herri administrazioetan euskararen eta normalizazioa arautzen duenak. Dekretu horrek hutsune bat bete zuen, araudi zehatz bat eman baitzuten herri administrazioei, nork bere jardura esparruaren barruan, berariazko planak egin zituzten, hizkuntzaren normalizazio egiazkoaren helburuak betetzeko.

Dekretu horren atzetik etorri ziren beste arau batzuk, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, testu bakar batean bildu, erregularizatu, argitu eta bateratu zituen arte Eusko Jaurlaritzak ordu arte emandako arau guztiak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzaren esparruan.

Arau horrek xedatzen duenez, aipatutako helburua (hori da, herri administrazioen -eta guztien aurretik, toki administrazioen- hizkuntza

normalizazioa) betetzeko ezinbestekoa da euskara hartzea bai herritarren zerbitzu hizkuntzatzat, bai lan hizkuntzatzat, eta horretarako botere publikoak eta herri administrazioak behartzen ditu, behar diren neurri administrazioak eman ditzaten.

250/1986 Dekretuaren aldi baterako xedapen bakarrean ezarri zen, lehenengoz, herri administrazioek, nork bere ahalmenen arabera, dekretuan ezarritako helburuak betetzeko beharrezko planak egin behar dituztela, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin batera, eta plan horiek aldian-aldian berrikusi behar direla.

86/1997 Dekretuko 4. artikulua, berriz, ezartzen du euskal herri administrazioetako hizkuntza normalizazio prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela.

Dekretu horrek bere 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa arautzen da: «18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen».

Azaldutako aurreikuspen guztiak betetzeko asmoz, udalak euskararen erabilera normalizatzeko planak onartu izan ditu, zehazki, ZZZZZZ datuz Euskararen Erabileraren Normalizazioko 5. Plana onartua du.

Plan horrek kontratazioaren esparruan xedatutakoak gauzatzeko, alkatearen eskumena da behar diren jarraibide eta aginduak ematea udalaren organo eta egitura guztiei, eraginkortasunez eta guztiz bete daitezen.

Horrenbestez, erakunde osoak era koherente eta errespetuzko batean jardun dezan kontratazio esparruan, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren eraginez udalak onartuak dituen arauen barruan, babes harturik 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak 21.1 artikuluan xedatutakoan, AGINTZEN DUT:

LEHENA.- Udalaren kontratazio publiko guztietan, kontratuak prestatu, bideratu edo onartzen dituzten organoek eta funtzionarioek beharkizun hauek bete behar dituzte:

1.1 Baldintza administrazioen agirian eta ezaugarri teknikoaren agirian behar bezalako hizkuntza baldintzak jaso behar dituzte, zerbitzua eta kontratua bi hizkuntza ofizialetan betetzeko enpresaren edo partikularraren hizkuntza gaitasuna eskatu eta egiaztatzeko.

1.2 Euskara Zerbitzuaren alde aurreko txosten lotesle baten mende jarri behar dituzte bai baldintza administrazio orokorren agiriak edo, behar denean, ezaugarri teknikoaren agiriak, bai ebatzen edo esleipen proposamena, ziurtatzeko hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren arauak betetzen direla kontratazio esparruan.

Era horretako txosten bat eskatu behar da, baita ere, kontratuen luzapena egin aurretik.

Euskara Zerbitzuaren arduradun teknikoak egin behar du txostena, zerbitzu horren zinegotzi ordezkariaren oniritziaz, halakorik balego, edo, bestela, euskararen nahiz hizkuntza normalizazioaren esparruko informazio batzordearen oniritziaz.

BIGARRENA.- Euskara Zerbitzuko arduradun teknikoa kontratazio mahai guztien partaide izango da, eta bertaratuko da agindu honen betekizunak hartara behartzen duen guztietan.

HIRUGARRENA.- Kontratu mota bakoitzaren baldintza administratibo orokorren agirietan (obrak, zerbitzuak, zerbitzu publikoen kudeaketa, herri lanen emakida, hornidurak, sektore pribatuarekiko elkarlana, eta izaera administratibo berezikoak) agindu honen eranskinean biltzen diren klausulak jaso behar dira, kontratatu nahi den zerbitzuaren arabera eta proportzionaltasun irizpidea gordeta.

LAUGARRENA.- Kontratu bakoitzaren gauzatzeaz arduratzen den alorreko arduradun teknikoari dagokio, baita ere, klausula horiek egiazki betetzen direla kontrolatzeko ardura, Euskara Zerbitzuaren elkarlanaz eta laguntzaz.

1.6. **ADMINISTRAZIO KONTRATUETAN JARRAITU**

BEHAR DEN PROZEDURA

Bi printzipio nagusi proposatu ditugu kontratuetan hizkuntza baldintzak txertatzeko prozeduran:

- Hizkuntza txostena derrigorrezkoa izango da kontratazio mota guztietan.
- Kontratazioa sustatu duen **administrazio** sailaren arduraren da kontratazio prozedura guztietan hizkuntza baldintzak txertatzea eta betetze mailaren jarraipena egitea.

Prozedura hau modu grafikoan eta erabilgarrian jaso dugu fluxu-diagraman.

Administrazio kontratuaren hizkuntza-baldintzak txertatzeko jarraitu beharreko prozedura estandarra

Prozedurari dagokion fluxu-diagrama

A. Hizkuntza-txostena derrigorrezkoa izango da kontratazio mota guztietan.

Derrigorrezko hizkuntza-txostena ezinbestekoa izango da prozeduran aurrera egiteko;

hiru momentutan egin daiteke:

- A.1. Kontratazio deialdiko baldintza-agiriak onartzerakoan -pleguetan-.
- A.2. Esleipena erabakitzerakoan.
- A.3. Esleipendunari kontratuaren jarraipena egiterakoan.

Hizkuntza-txosten bakoitzaren garapena B atalean (behean) xehatu da.

Kontratazio mahai/batzordean hizkuntza-irizpideak baloratu behar direnean, **ezinbesteko kide** izango da euskara zerbitzuaren arduradun teknikoa.

B. Udal sail bakoitzaren ardura da bere kontratazio-prozedura guztietan hizkuntza-baldintzak txertatzea eta jarraipena egitea.

Euskara zerbitzuak klausula orokorrak eskuratuko dizkio udal sailari eta jarraipenerako metodologia adostuko dute lankidetzan.

A.1. **Kontratazio deialdiko baldintza agiriak** onartzeko: kontratazioa sustatu duen sailak pleguetan hizkuntza-irizpideak txertatuko ditu..

A.2. **Esleipena erabakitze**ko: kontratazioa sustatu duen sailak eskatutako hizkuntza-baldintzak betezen diren egiaztatuko du. Horretarako, sailak aholkua eska dezake euskara zerbitzuari: hizkuntza azterketak, etab.

A.3. **Esleipendunari kontratuaren jarraipena egite**rako: kontratazioa sustatu duen sailak jarraipenerako txostena egingo du.

Euskara zerbitzuak **hizkuntza-txostena** egingo du.

Aldeto txostena

Ho betzekeen txostena

Sailaren arduradunari txostena helaraziko dio euskara zerbitzuak.

1.7. KLAUSULAK

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietarako dira eta kontratu bakoitzean jarri beharreko hizkuntza baldintzak kasuan kasu aztertuko dira, kontratuaren ezaugarriak, helburua eta hartzaileak kontuan izanda (proportzionaltasun printzipioa).

Hizkuntza baldintzak bi bidetik jorratu dira: "euskaraz jarduteko baldintzak" eta "euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko baldintzak".

Euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko baldintzak: kontratu guztiek nahitaez bete behar dute hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea.

Euskaraz jarduteko baldintzak: kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dutenean; berezko ezaugarri horiek zein diren ondo arrazoitu behar da kontratuaren baldintza administratiboetan. Besteak beste, hauek izan daitezke berezko ezaugarriak: zerbitzuaren jardueraren gaia, xede taldea edo Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena.

Taula bakoitzean proposatu ditugun hizkuntza baldintzak hiru ataletan banatu dugu:

- baldintza administratibo berezien agirietako karatulan jaso beharreko baldintzak. Bereziki, gure hizkuntza araubide ofizialaren aipamenak.
- baldintza administratibo berezien agirietan jaso beharreko baldintzak. Baldintza administratiboetako hizkuntza baldintzen artean zehaztu ditugu baita ere hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipena eta baldintza horiek ez beteatzearen ondorioak.
- ezaugarri teknikoaren agirietan jaso beharrekoak. Ezaugarri teknikoetan bereiztu ditugu: hizkuntza gaitasuna, hizkuntza paisaia, erabilera herritarrekin eta erabilera administrazioarekin.

Hori guztia, **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak** jasotzen duen kontratu mota bakoitza kontuan hartuta: obra kontratu, herri-lanen emakida, zerbitzu kontratu, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu eta hornidura kontratuetako hizkuntza baldintzak zehaztu ditugu.

ADMINISTRAZIO-KONTRATUETAN BETE BEHAR DIREN HIZKUNTZA- BALDINTZEN PROPOSAMENA "Euskaraz jarduteko baldintzak"

Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>Karatula</p> <p>Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeke azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, [udal bakoitzak berariaz onartuta daukan hizkuntza araudia aipatu].</p> <p>Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeke prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso behariko dituzten gutxieneko edukia zehazten ditu eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliiko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezzen." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.</p> <p>Kontratuaren xede den prestatzioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute eta kontratuaren administrazio baldintza berezien agirian jaso da. Berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena.</p> <p>[Arrazoitu kontratu bakoitzaren berezko ezaugarria(k) zein d(ir)en.]</p> <p>Ondorengo baldintza agirietan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.</p>				

Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI ADMINIS-TRATIBOAK</p> <p>I</p>	<p>Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute eta, ondorioz, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.</p> <p>Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekin edo, oro har, jendearekin harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera jokatu da: zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.</p> <p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunej dagokienez.</p>		

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI-ADMINISTRATIBOAK</p> <p>II</p>	<p>Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.</p>	<p>Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute eta, ondorioz, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak euskaraz egingo dira, sofwareetako testuzko eta soinu-zuko interfazeak barne.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute eta, ondorioz, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituen zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute eta, ondorioz, enpresa esleipendunak euskaraz eskainiko dituzten erabilera eskuliburuak eta gainerako dokumentazioa, sofwareetako testuzko eta soinu-zuko interfazeak barne.</p>

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI-ADMINISTRATIBOAK</p> <p>III</p>	<p>Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:</p> <p>Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatzuz.</p> <p>Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu. • Ikuskaritza kontratu bukaeran ezezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabiltza, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko. 				
	<p>Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen ondorioak:</p>				<p>Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.</p>

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK I</p>	<p>Hizkuntza gaitasuna</p>	<p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p> <p>Kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea hobetsiko da, eta, gutxienez, B2 gaitasun maila eskatuko da.</p> <p>Kontratu esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.</p> <p>Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berriak sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.</p> <p>Hizkuntza gaitasuna egiaztatze honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).</p> <p>Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.</p>	<p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p> <p>Kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea hobetsiko da, eta, gutxienez, B2 gaitasun maila eskatuko da.</p> <p>Kontratu esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.</p> <p>Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berriak sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.</p> <p>Hizkuntza gaitasuna egiaztatze honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).</p> <p>Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.</p>	<p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p> <p>Kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea hobetsiko da, eta, gutxienez, B2 gaitasun maila eskatuko da.</p> <p>Kontratu esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.</p> <p>Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berriak sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.</p> <p>Hizkuntza gaitasuna egiaztatze honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).</p> <p>Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.</p>	
<p>Hizkuntza paisaia</p>		<p>Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehenetasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.</p>			

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK II</p> <p>Erabilera herritarrekin</p>			<p>Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.</p> <p>Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.</p> <p>Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.</p> <p>Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.</p>		
<p>Erabilera administrazioarekin</p>	<p>Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.</p>				

ADMINISTRAZIO-KONTRATUETAN BETE BEHAR DIREN HIZKUNTZA BALDINTZEN PROPOSAMENA "Euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko baldintzak"

Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>Karatula</p> <p>Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, (udal bakoitzak berariak onartuta daukan hizkuntza araudia aipatu).</p> <p>Apilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako plegetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.</p> <p>Ondorengo baldintza agirietan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.</p>				

Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI ADMINIS-TRATIBOAK</p> <p>I</p>	<p>Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabekoak izango dira.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea; horren arabera, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.</p> <p>Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekin edo, oro har, jendearekin harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera jokatu da: zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.</p> <p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p>		

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI ADMINIS- TRATIBOAK II</p>	<p>Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehenetasuna emanaz, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.</p>	<p>Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehenetasuna emanaz, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea; horren arabera, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak barne.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea; horren arabera, esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.</p>	<p>Karatulan espresuki adierazten den bezala, kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea; horren arabera, enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak barne.</p>

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI ADMINIS-TRATIBOAK</p> <p>III</p>	<p>Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:</p> <p>Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatzuz.</p> <p>Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:</p> <p>Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.</p> <p>Ikuskaritza kontratu bukaeran ezezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabiltza, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.</p> <p>Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen ondorioak:</p> <p>Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdina izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.</p>				

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>Hizkuntza gaitasuna</p>		<p>Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p> <p>Kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea hobetsiko da, eta, gutxienez, B2 gaitasun maila eskatuko da.</p> <p>Kontratu esleitu aurretik egiaztatatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.</p> <p>Era berean, enpresa kontratatatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatatu beharko dute.</p> <p>Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).</p>	<p>Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.</p>		
<p>Hizkuntza paisaia</p>	<p>Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezuak izango dute ondoan.</p> <p>Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.</p> <p>Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.</p>				

	Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	Hornidura kontratuak
<p>BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK</p> <p>II</p>		<p>Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.</p> <p>Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeo eskubidea.</p> <p>Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu behar du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.</p>	<p>Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu behar du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.</p>		
<p>Erabilera administrazioarekin</p>	<p>Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira.</p>				

1.8. **JARRAIPENERAKO FITXAK ETA ERABILERARAKO GOMENDIOAK**

Hizkuntza baldintzen betetze-mailari jarraipena egiteko bi fitxa orokor sortu dira.

Jarraipenerako material osagarri modura, bi fitxa prestatu ditugu: batetik, obra kontratu eta hornidura kontratuen jarraipena egiteko fitxa eta, bestetik, herri-lanen emakida, zerbitzu kontratu eta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen jarraipena egiteko.

Hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipen txostena, kontratazioa sustatu duen sailak egingo du, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan. Beraz, fitxa hauek tresna lagungarriak izan daitezke jarraipenerako metodologia adosteko.

Gainera, jarraipen-fitxak nola eta noiz bete behar diren gomendio-orria gehitu dugu fitxen ondoren.

JARRAIPENA EGITEKO FITXA

2

- **HERRI-LANEN EMAKIDAK**
- **ZERBITZU KONTRATUAK**
- **ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO KONTRATUAK**

ENPRESATALDEA/ELKARTEA:

KONTRATUA:

IRAUPENA:

HARTZAILEAK (kopurua, adina...):

JARDUERA:

baldintza agjrietan jasotakoa		eskatutakoa				jarraipena				zuzenketa ondoren								
		eus	gazt	biak	pikt	best	eus	gazt	biak	pikt	best	eus	gazt	biak	pikt	best		
ERABILERA HERRITARREKIN eta HIZKUNTZA PAISAIA (testuen kopiak jaso)	ahozko harremanak	lehen hitza aurrez-aurre																
		telefonoz																
		erantzungailuan																
		bozgorailua																
		bilerak																
		errotuloak																
	idatzizko harremanak	oharrak																
		komunikazio orokorrak																
		esku-orriak																
		produktuen bilgarriak																
		etiketak																
		...																

baldintza agirietan jasotakoa		eskatutakoa			jarraipena			zuzenketa ondoren						
		eus	gazt	biak	eus	gazt	biak	eus	gazt	biak	best	pikt	best	pikt
ERABILERA ADMINISTRAZIOAREKIN	ahozko harremanak													
	idatzizko harremanak													
	proiektua													
	aurrekontua													
	kontratua													
	fakturak													
	txostenak													
urteko memoria														
testuzko interfazeak														
soinuzko interfazeak														
...														

baldintza agirietan jasotakoa		eskatutakoa			egiaztatutakoa			jarraipena						
		B2 ahoz	B2 ahoz	C1 ahoz	C1 ahoz	C2	B2 ahoz	B2 ahoz	C1 ahoz	C1 ahoz	C2			
HIZKUNTZA GAITASUNA	langilea 1													
	langilea 2													
	...													
OHARRAK														

Jarraipenerako fitxak betetzeko gomendioak

Gomendioak fitxa betetzeko epeekin lotuta dago.

Estandarizatu ditugun bi fitxetan hiru zutabeetan hiru epe jaso ditugu (ikus behazan).

Eraginkorrenea Jarraipen fitxak hiru epetan betetzea da:

1. zutabea **eskatutakoa**: kontratuaren **hasieran** pleguetan jasotako hizkuntza-baldintzak sartu fitxan.
2. zutabea **jarraipena 1**: **hilabetera**, "eskatutakotik" bete dena eta betetzeke dagoena jasoko da zutabe honetan. Jarraipenean hutsunerik antzemanaz gero, enpresari jakinaraziko dio dagokion sailak.
3. zutabea **jarraipena 2**: kontratua indarrean sartu eta **urtebetera** edo kontratua amaitzen denean (Udalekuak-udazkena) hizkuntza-baldintzen betetze-maila jasoko da. Bigarren jarraipen honen ondoren ondoren hutsunerik antzemanaz gero, enpresari jakinaraziko dio dagokion sailak.

Jarraipen fitxaren atala:

baldintza agirietan jasotakoa		eskatutakoa						jarraipena 1						jarraipena 2					
		eus	gazt	biak	pikt	best		eus	gazt	biak	pikt	best		eus	gazt	biak	pikt	best	
HIZKUNTZA PAISAIA (testuen kopiak jaso)	errotuloak																		
	oharrak																		
	komunikazio orokorrak																		

1.9. KONTRATATUTAKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Jendaurreko zerbitzu bakoitzarentzako proposatutako hizkuntza gaitasuna (HG):

Emakidak: udal lokalak eta guneak ustiatzeko kontratuak	
Taberna zerbitzua (kiroldegia, kultur etxea, frontoia...)	2 HG ahozkoan
Zinematografia zerbitzua	
Atezaintza zerbitzua (kiroldegia, kultur etxea...)	
Herri-garraioko zerbitzua	
Jangela zerbitzua	
Kantinak	
Udal instalazioen garbiketa zerbitzua	
Babestutako etxeetako laguntza	
Erakusketen zainketa eta ikusleei kasu egitea	
TAO zerbitzua	
Udal hilerriko zerbitzua	3 HG
Turismo bulegoa	
Musika eskola	1 HG
Muntaia zerbitzuak	
Hirugarren adinerako zerbitzuak	
Etxez-etxe laguntza	2 HG ahozkoan
Eguneko zentroko zainzaileak	
Artapen pertsonalizaturako zerbitzua eguneko egoitzan	
Ileapaindegi zerbitzua	
Garraio zerbitzua	
Podologia zerbitzua	3HG ahozkoan. Arduradunak, gutunak, txostenak, planak eta memoriak egiten dituenak 3 HG ahozkoan eta idatzizkoan.
Fisioterapia zerbitzua	
Egoitzako erizaintza	
Kultura eta aisia zerbitzuak	
Haurrentzako tailerrak	3HG ahozkoan. Arduradunak, gutunak, txostenak, planak eta memoriak egiten dituenak 3 HG ahozkoan eta idatzizkoan.
Gazteentzako lokala, gaztelekua	
Haur eskola	
Haur eta gazteentzako ikuskizunak	
Gazteen informazio bulegoa	
Saharako hurrekin egoteko begiraleak	
Ingurumen heziketa	
Kale hezitzaileak	
Famili hezitzaileak	
Ludoteka	
Suspertzaile soziokulturalak	

Natur eskola	
Udalekuak	
Kiroldegiko sorosleak	2 HG
Barrakak, zirkoak -aurkezleak-	
Prestakuntza ikastaroak	
Kiroldegiko begiraleak	2 HG edo 3 HG ikastaroaren izaeraren arabera. Haurrekin edo gazteekin egon behar badute 3 HG
Kultur etxeiko ikastaroetako begiraleak	
Udal langileentzat ikastaroak	3HG
Eskoletarako droga prebentziorako programak	
Emakume eta gizonetzkoen arteko parekidetasuna sustatzeko heziketa programa	
Langabetuentzat prestakuntza	
Osasun eta prebentzio zerbitzuak	
Udaleko osasun zaintza	3 HG
Lanpostuen lan-arriskuen balorazioa eta prebentzio-neurriak finkatzea	
Enpresa medikua	
Sexu aholkularitza	
Drogen informazio gunea	
Laguntza eta eskuhartze psikosoziala	
Analisiak, gaitasun azterketak...	
Batzordeetan aholkulari lanak	
Aholkularitza zerbitzuak eta azterlanak	
Komunikazio aholkularitza zerbitzua	3/4 HG
Abokatua, arkitektoa...	3 HG
Proiektu teknikoak, defentsak...	
Lanpostuen azterketa, espedienteen azterketa, PERCO, berdintasun plana, Plan Estrategikoa, kontuen ikuskaritza...	

Txosten hau Donostian eguneratu da, 2014ko urtarrilaren 17an.
